

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

2025eko maiatzaren 21eko ALHAOn (56. zenbakia) argitaratutako 2025-01380 iragarkiko akatsa zuzentzea. Iragarki hori Vitoria-Gasteizko udalerrian erabilgarri dauden merkataritza-lokalak dinamizatzeko 2025eko laguntzen deialdi publikoari eta oinarri buruzkoa da

Akats bat aurkitu da 2025eko maiatzaren 21eko (asteazkena) ALHAOn (56. zenbakia) argitaratutako 2025-01380 iragarkian. Iragarki hori Vitoria-Gasteizko udalerrian erabilgarri dauden merkataritza-lokalak dinamizatzeko 2025eko laguntzen deialdi publikoari eta oinarri buruzkoa da. Hori dela eta, honako akats-zuzenketa hau argitaratzen da:

Honela dioen lekuan:

2023ko apirilaren 21ean egindako ohiko bilkuran, Vitoria-Gasteizko Udalbatzak Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorrari hasierako onespina ematea erabaki zuen. Behin betiko ordenantza 2023ko uztailaren 28ko ALHAOn argitaratu zen (88. zenbakia), eta 2023ko urriaren 1ean jarri zen indarrean. Ordenantza horren xedea da Vitoria-Gasteizko udalerriko Alde Zaharrean eta Zabalgunean erabilgarri dauden lokalak dinamizatzeko laguntzak emateko oinarri arautzaileak ezartzea 2025eko ekitaldirako.

Honela behar du:

2023ko apirilaren 21ean egindako ohiko bilkuran, Vitoria-Gasteizko Udalbatzak Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorrari hasierako onespina ematea erabaki zuen. Behin betiko ordenantza 2023ko uztailaren 28ko ALHAOn argitaratu zen (88. zenbakia), eta 2023ko urriaren 1ean jarri zen indarrean. Ordenantzaren xedea da Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzak emateko prozeduraren oinarri arautzaile orokorrak ezartzea.

Herritar oro jakinaren gainean egon daitezen ematen da argitara.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko uztailaren 1ean

Administrazio Zerbitzuko burua

JOSEBA ANDONI GARCÍA-ARDANAZ ARDANAZ